HAUR ETA GAZTE LITERATURA: BITARTEKARITZAREN ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK

2027

Non: Medialab, Tabakalera, Donostia
Noiz: 2027ko urtarrilaren 13tik maiatzaren 12ra, asteazkenez, 17:00-20:00
Ordu kopurua: 42 ordu
Formatua: presentziala
Ikasleei eskatuko zaie: asistentzia (%80)
Homologazioa: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak
Babeslea: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzaren barruko Liburutegi Zerbitzua

AURKEZPENA

Ikastaroaren xedea haurrekin eta gazteekin literaturaren eta irakurketaren bitartekaritzan ari diren bitartekariei **tresnak** eskaintzea da; alde teorikoari helduko diogu, baina ikastaroaren ardatza **bitartekaritza estrategiak eta praktikak** izango dira; 2027an arreta berezia jarriko diegu, batetik, haur txiki-txikiekin egiten den irakurketa bitartekaritzari eta, bestetik, gazteekin egiten denari.

Saio gehienak euskal adituek eta arituek egingo dituzte, kanpotik ere etorriko dira puntako adituak hemengoen jakintza aberastera.

HARTZAILEAK

Bitartekaria da liburuaren/irakurketaren eta haurraren edo gaztearen dagoen profesionala, amateurra edo gurasoa. Zubia da, xamana da. Bi mundu lotzen ditu eta ez da magia egiten dakielako; lotzen baditu, bi munduak oso ongi ezagutzen dituelako da. Ezagutza hori da, hain justu, ikastaro honetan landuko duguna.

Hartzaileak, horrenbestez, bitartekaritzan ari diren pertsonak dira: liburuzainak, irakasleak, liburu-saltzaileak, editoreak, irakurleak, idazleak, ilustratzaileak, gurasoak eta, finean, haur eta gazte literaturaren bitartekaritzan interesa duen edonor.

NON eta NOIZ

Medialab, Tabakalera, Donostia
2027ko urtarrilaren 13tik maiatzaren 12ra, asteazkenez, 17:00-20:00

HOMOLOGAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren homologazioa izango du.

EBALUAZIOA

Titulua lortzeko %80ko asistentzia eskatuko zaie ikasleei.

IZEN-EMATEA

Ikastaroan izena emateko epea zabalik egongo da azaroaren 9tik 20ra bitartean. Horretarako formulario hau bete behar da; formularioan datu pertsonalak eta gehienez hamar lerroko gutuna idatzi beharko da, non ikastaroa egiteko motibazioa agertu beharko den.

30 lagunentzat tokia dago.

Ikastaroan onartutako pertsonei emailez jakinaraziko zaie lehenbailehen.

MATRIKULA

Matrikula abenduan zehar formalizatu beharko dute ikasleek.

Matrikularen prezioa:

- 50 euro langabetuek eta ikasleek
- 100 euro Galtzagorriko bazkideek
- 150 euro beste guztiek

Matrikula Galtzagorri elkartearen bitartez egin beharko dute.

PROGRAMA

HAUR ETA GAZTE LITERATURA: BITARTEKARITZAREN ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK 2027

Non: Medialab, Tabakalera, Donostia
Noiz: 2027ko urtarrilaren 13tik maiatzaren 12ra, asteazkenez, 17:00-20:00
Ordu kopurua: 42 ordu
Formatua: presentziala
Ikasleei eskatuko zaie: asistentzia (%80)
Homologazioa: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak
Babeslea: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzaren barruko Liburutegi Zerbitzua

1. Bitartekaritza: oinarriak		
Zertaz ari gara bitartekaritzaz ari garenean? Bitartekaritza gazteekin	Urtarrilak 13	Freddy Gonçalvez
Zertaz ari gara bitartekaritzaz ari garenean? Aurkezpena eta hirugarren ordua haur txikiekin egin ahal den bitartezkaritzaz	Urtarrilak 27	Anna Juan Cantavella
Nola egin irudien bitartekaritza	Otsailak 3	Piu Martinez
"La infancia en juego: cultura digital y mediación cultural"?	Otsailak 10	Lucas Ramada
2. Bitartekaritza: espazioak		
Herri liburutegia	Otsailak 17	Igor Idoeta
Eskola Liburutegia	Otsailak 24	Maria Pousa
Eskola	Martxoak 3	David Bilbao eta Idoia Alustiza
3. Bitartekaritza: sortzaileak, hautaketa irizpideak eta praktikak		
Ahozkotasuna	Martxoak 10	Yolanda Arrieta
Ipuin kontaketa eta antzerkia	Martxoak 17	Dorleta Kortazar eta Intza Alkain
Albuma	Apirilak 7	Karla Fernández de Gamboa
		Maite Gurrutxaga

Poesia	Apirilak 14	Iñigo Astiz
		Garazi Basterretxea eta Celeste Agüero
Komikia, fanzinea eta autoekoizpena	Apirilak 28	Maite Caballero eta Paula Estévez
Narratiba	Maiatzak 5	Eider Rodríguez eta Eider Pérez
4. Bitartekaritza: jasotakoaren batuketa		
Bitartekariaren tresnak	Maiatzak 12	Mireia Delgado